



ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

—: || 12 Urtea || 1930'ko Azaroa || 143 Zenbakia. || :—
Abendua 144

Meza santua eta bere ondasunak

Christus dilexit nos, et tradidit semetipsum pro nobis oblationem et hostiam. (Ephes. V, 2).

Kristok maitatu genitun, eta bere burua eman zuen gure alde eskeñi ta oparizat jaungoikoari.



EZA Santua, Jesus'en gurutzeko Opari oñazezkoa, oñaze gabe befitzea dala, esan genizuen lengoan.

Orduko Oparia ta Mezakoa, eztira oso berdin egiten. Orduko Oparia edo eskeñaldia Jesus'ek berak, bere eskuz egin zion Aitari; Mezakoan ordea Apaizen eskuz egiten dio.

Gurutzeko Oparia oñazez beterik eta odola zeriola eskeñi zion; Mezakoa oñazerik eta odol-ixurtzerik gabe egiten du.

Gurutzean orduen ematen zuen bizia ta odola eskeñi zituen; orain orduko bizia ta odola balio berarekin eskeintzen ditu.

Jesus'ek Gurutzean Oparizat eskeñitako gorputz eta odola berberak, ogi ta ardoaren irudipean eskeintzen diranezkero, orduko Oparia bera da ta orduko merezimendu bera du Mezak. Argatik Trento'ko Eliz-Batzafreak: «Orduko Opari oñazezkoaren ondasunak ugari (efuz) edo usu irixten dira onen (Mezaren) bidez».

Meza Santua, oparirik oberena.

Oparia, ainbat ohea da, zenbat eta eskeñitako gauza ta eskeintzalea ere ohea dan. Mezan eskeintzen zaio ordea Jaungoikoari, iñon den gauzarik aundiena, bere Seme gizon egiña; ta bere lufeko ordurik lafienetan eskeñi zitzaien eran, au da, bere odola ainbesteko oñazetan gorputzetik boferoak atera zioten ordua berituz. Orduan zigoradadak, arantzak eta iltzeak gorputzetik berezi zioten odola, Mezan Sagarako itzen bidez befiro bereziko balitzaio bezela, alde batera gorputza ta bestera bere odola agertzen ditu gure begietan; eta Bera ilik dagoanaren antzean eskeintzen zaio bere Aitari. Mezan lufeko Apaiza agiri zaigu Opari au egiten; baño Jesus, betiko Apaiza da Opari onen eskeintzale nagusia. Argatik esaten du Apaizak ogiaren gañean: «au nere gorputza da»; ta kalizaren gañean: «au, nere odola... da.» Jesus'en gorputz eta odola dira, ez Apaizarenak.



¿Meza Santua zertarako ote da?

Meza Santua lau gauzetarako da:

1^a Jaungoikoa jauresteko (adoratzeko) edo gure Jaun eta Jabetzat ezagutzeko. 2^a Eskeñak emateko. 3^a Ontarte edo mesedeak eskatzeko. Eta 4^a Barkazioa, naiz pekatuena ta naiz oien eraman-beafena irixteko.

Nola irixten diran lau gauza oiek

1^a Oparia, Jauna adoratzeko da; ta Jesukristo, Jaungoikoaren Semeak bezin ondo gnork jauretsiko du bere Aita? Jesus gizon jainkozkorearen antzean, Aren

Santutasunarekin, Aren ezaguerarekin eta maitetasunarekin gnork agurtu (adoratu) ote dezake Jaungoikoa? Edo gzer eskeñi ote dezaioke gizonak Jaunari, bere Semearen eskeintzak aña esan nai duenik, edo oñek bezala aren biotza bete dezakenik? «Alako Apaiza, Jesus Jaungoikoaren Seme, zeruetan sartu zana daukagun ezker» (Hebre. IV-14) Oparirik oberena eskura daukagu.

2^a Oparia, Jaungoikoari eskeñak emateko da. Eukaristia edo Eskergaria izenetako daukan Oparia baño ezer oberik bai al da edo izan al diteketo? Alegia ezetz. Meza ematen dan bakoitzean, *ex opere operato* edo Meza emate utsaz, edo emateakin bakafik irixten dira, *opariaz* iritxi nai diran bi gauza oiek, au da Jauna alik obekiena jaurestea edo adoratzeta ta eskeñik onenak Berari ematea.

3^a Oparia mesede beñiak irixteko da; eta Trentoko Eliz-Batzafak dio Gurutzeko «Opari odolezkoaren zitu edo frutuak ugari, efuz edo usu irixten dirala Mezan».

Elizaren lenengo egunetako Liturgietan ikusten degunez Meza Santua «Eliza guzien pakerako, mundu osoaren zuzentzea irixteko, gaxo, eri, miñez zeuden aien alde, ez-beařetan, naigabetan arkitzen ziranen onetan» ematen zala. Gaur beste ofenbeste egiten da, Jesusek bere opari ofen bidez Aitari bear ditugun guziak eskatzen dizkiolako.

Ondasun ok ere Meza emateaz bakafik irixten dira; baño ez *naita-naiez*. Esan nai degu, Mezak berez ba-duala grazi, mesede, ontarte eskatzen ditugun guziak irixteko. Baño eskatzen deguna kalte izan genezake zeruratzeko; edo obe ez irixtea, irixtea baño, ta orduan etzaigu eskatua ematen, baizik beste zerbait obeto dařorkiguna.

4^a Oparia azkenean barkapena irixteko da. Ta Mezaren bidez *berez* edo *ex opere operato* pekatu lafi ta txikien barkapena irixten da; baño ez bereala. Esan nai da, Mezak animean sortzen duela *berez* pekatu oien barkapena irixteko animak bear duen egokitasuna. Eta ori esan nai du Trentoko Eliz Batzafak itz auetan: «Jauna gozaturik Opari ontaz, damutzeko grazi ta doaia emanez, pekatu izugariak ere barkatzen ditu».


Pekatuak kiřo egiteko aldi bateko genuken eramanbeařa ere, *berez* barkatzen zaigu Mezaren bidez, baño au ere ez *naita-naiez*.

Naiz bizien, naiz ilen animen zofak garbitzen dira, ba, Meza Santuaren bidez, osotara ez-pa-da ere, anima beraren egonerak ez-pa-du galerazten.

Pekatu lařian dagoan animak, galerazten du bertatik bere zofak barkatzea. Artarako pekatu lařiaren barkamena bear auřena.

Meza Santuak berez ditun ondasun oiek beti datoz Meza ematean, nor nai dala ere meza emalea edo entzuntzalea. Baño ondasun ainbat aundia-goak irixten dira oietaz gañera Mezaren bidez, zenbat eta emalea ta entzuntzaleak obeak, eta lan ori obeki egiten dutenak, diran.

Intza'r Damaso A.





GUZTIZ EDERA

Gau-erdia zan... Ezeren txintik
etzan entzuten, noizka bakafik
pizti gautafen ulua...

Iŭo zituzten baztar guziak
iŭunpe lodi, nazkagafiak.

¡Beldur damaidan ordua!

Kezka beltzaren osin aundia
zirudin ziñez efi-aldia

nagiz korapilātua...

Argi motelak dirdir zegiten....

sapai neurgeon aldiz zematzen

ontzaren begi galdua...

Ta ilunpe ofen egadapean

gogo gaxo bat ilar-gañean

zegoan loak artua.

Gogoak:

(Ariturik bezela)

¿Nor zaitut, gaztetxo, nor, zoragaría?...

¿Zeren bila zatozkit?... ¿Zein da zure naia,
oñetik bururaño zilafez jantzia?...

„Nora zoaz, gaztea, nora ain zolia?...

Goiangeruak:

(Zaleki)

¡Atoz, atoz lenbailen; atozkit, gaxoa!...

¡Donokitik dakartzut gaur beñi gozoa!...

¡Atoz!... Alaitu zaitez... ¡Igitu, gogo!...

Ara zuri begira goian Izartxo!!...

Gogoak:

¿Zer diozu, gaztea, zer, nere kutuna?...

¡Begira zeñen beltza or iluntasuna!...

Goiaingeruak:

¡Pizkortu zaitez laister!... ¡Astindu losuna!...

¡Nekin daramat beti nik argitasuna!...

Ego liraiñez estali zuen

azkenik gogoa,

ta gaindu zuten ega luzean

mendiren lepoa.

Gogoak (Tontorean)

(Orpo puntetan

Izafari begira)

Zeñen *aratza*, zeñen txuria

¡Izartxoaren dirdira!...

Zeñen maiteki begiratzén dit

zeru ortatik ludira!...

Goiaingeruak:

Laztandu nairik zugana datoz

Izartxoaren izpiak.

Dirdir dagizu... Liluratuak

damaie zure niniak.

Gogoak: ¡Izar edera, zoragaría,
biotz erien zoruna!...

Goiangeruak: ¡Geitu zazula zure goraltza
ziñez zaio-ta leguna!...

Gogoak: «Gutziz Edera zera Maria. (Biak aldizka
Goiangeruak: Gutziz Edera, sortzez garbia. abesten dute
Gogoak: Zu zera Jerusalemgo ospea. «Tota pulchra es»)
Goiangeruak: Zu, Israeleko pozkilea.
Gogoak: Zu, gure erien omen osoa.
Goiangeruak: Zu, ebendien bitartekoa.
Gogoak: ¡O Maria!
Goiangeruak: ¡Birjin oarkofa!
Gogoak: ¡O Maria!
Goiangeruak: ¡Ama Efukofa!»

LORAMENDI
(O. M. C.)

Deba'ko Ostolatza Jaunaren Eskola

¡Zenbat zalaparta! Obispo Jauna, Apaiz Jaunak, kristau zintzoak, eta Elizaren aldeko paperak Ostolatza Jaunaren kontra jari dira, baño beste asko ere, bere adixkideak ta ezkefeko paperak Ostolatza Jaunaren alde!

¿Zer egiñ ote du bada Deba'ko Jaun ospatsu oñek?

¡Eskola eder bat jari omen du bere erian! ¡Eñiko mutil askok ikasten omen dute eskola ortan! Oso jakintsuak ateratzen omen dira eskola ortatik.

Eta ofengatik jari ote dira Obispo Jauna ta Apaiz Jaunak ta Kristau zintzoak bere kontra?

Ez, Elizak, ta Obispoak ta Apaizak asko poztutzen dira eskola edera, baño kristau eskolak, jasotzen diranean: bestela ez. Gizonak gorputza ta anima dauzka. Ez da naiko asko ikastea, jakintsu aundi bat izatea. Eskola ortan ez ba'zayo animari begiratzten, ez dute ezer ikasi mutil gaxo oyek. Eguneroko ogia irabazten erakusten ba die eskola ortan ta azkenen anima galdu ba dute, ez dute ezer egin.

Ofengatik Elizak, ta Obispo Jaunak ta Apaiz Jaunak asko maite dituzte eskolak, baño kristau eskolak, dotriñata animako gauzak erakusten diran eskolak.

Ta Debako eskol ortan ¿ze ote da ba Obispo Jaunak ta Apaiz Jaunak aibeste oju egiteko?

¿Ze ote dan? Eskola ortan Biblioteca edo Liburutegi bat jafi du bere nagusiak, ta liburu oyetatik batzuk edo asko, liburu gaixtoak dira, fedearen ta oitura onen kontrako liburuak. Liburu oyek veneno edo pozoya besterik ez dira eskola artara joaten diran mutiñentzak, eta baita ere Liburutegi artara joaten diran guzientzat. Ofengatik aibesteko oju egia du Obispo Jaunak.

¿Ondo egingo al dezute bada, Liburutegi ortan edozein liburu irakurtzera joaten ba zerate? Gaizki, ta oso gaizki egingo dezute; zuen animak ondatuko bai dituzte ango liburu asko, gaixtoak diralako; ta batez ere zuek gurasoak jakin zazute: Zuen semeak, oso jakintsu egiten ba dira ere eskola ortan, izan liteke bere animak ustelduak ateratzea, ango liburu ayetan irakuri dituzten gauzak. Ori egia da.

Donostiar Gabriel A.

JAKINBEARAK

VIII

Gurutze-Bula ta aragizkoa

Nere etxian nik artzen ditut bula guziak, nere guraso ta anai guzientzat. *¿Baliyo al die berai?* Zure guraso ta anayak bula oyek artu nai ba dituzte bai, bestela ez; ofegatik esan egin bear diezu jakin dezaten, eta ontzat artu dezaten: bestela, zuk artu afen berak nai ez balituzkete, ez dezu ezer ere egiten.

Aragizko bazkaria aragi uzte egunean

Jauna, aragi uzte egunean (vigilia) ezer ere pentsatu gabe, aragizko janaria jafi nien nere etxekoai, ta mayera joan arte ez giñan ezer ere oartu, ta berandu zalako besterik egiteko, guziak andik jan egin genun. *¿Gaizki egiña al dago ori?*

Elizako legeak, Eliza gure ama ona dalako, ez dute beartzen neke aundiyaz; eta ordu ayetan bazkari befia egitea, neke aundiya izango litzake ofengatik ondo egin zenuten bazkari ura jaten. ¡Jan ta auferal!

Mutil gaztien aldizkingia

Nik eztizut esango, nere gazte maite ori, gaurko «Zine'tan» ikusten dituzuten gauzak txafak dirala.

Zine ori ona eta txafa izan liteke. Geyenetan txafa, loikeri asko azaltzen dituztelako.

Ofegatik obe dezu ez geyegi zaletu.

Gauza asko esan ditezke Zine'aren alde, baño askosez geyago Zine'aren kontra.

¿Zer egin bear dezun bada zuk? Nere adiskidea: nik emendik, kontentuko zulo ontatik ez dizut esango zein diran astero ta egunero azaltzen diran «película» onak edo txafak, ezpaita gauza erexa ori, baizik oso zaia: baño badezu zuk Donosti'n azaltzen dan aldizkingi eder bat, «Junior» izena duana, ta mutil guzien eskuetan egon bear lukena, batez ere Luistar'en eskuetan, beren Kongregaziyoen otsa dalako, eta aldizkingi ortan ilero-ilero jartzen dituzte zein diran Zine'tan ikusi ditezken «películak» eta ikusi ezin ditezkenak ere bai.

Artu zazu bada lenbailen aldizkingi ori.

¿Ezkongayentzat ona?

Ona ote dan ezkongayentzat ere Sales'tar Frantzisko Deunaren «Deboziozko Bizitza» deritzayon liburua? Bai andrea, oso ona, gauzen batzuk ezkonduentzat esanak izan afen. Oyek utzi itzazu, nai badezu irakufi gabe: baño irakufi afen, oso ederki etofiko zaizkitzu egunen batean, Jaungoikuak nai badu.


Donostiar Gabriel A.

Virgo Dei Genitrix


(Ex libro «Cantuale Romano-Seraphicum»)

(Donosti'ar J. And. A'k. ereskidetua)


1) Vir-go De-i Genitrix quem totus non capit or-bis: In tu-a se clau-sit



vis-ce-ra fac-tus ho-mo. 2) Ve-ra fi-des Ge-ni-ti pur-ga-vit cri-mi-



na mun-di, Et ti-bi vir-gi-ni-tas in-vi-o-la-ta ma-net.



3) Te matrem pietatis,
opem te clamat orbis:
Subvenias famulis,
o benedicta, tuis.

Jaungoikoaren Ama,
¡Zeñen edera zu zeran!
Zure eñai garbieten
Jaungoiko gizondu zan.

Semearen fedeak
garbitu zuen mundua:
eta zuri, garbia,
daukazu Zuk gogua.

4) Gloria magna Patri,
compar sit gloria Nato,
Spiritus Sancto,
gloria magna Deo. Amen.

¡Ama oñen beñatxa!
zuregan dago gizona:
lagun iguzu guri
Ama gozo ta ona.

Aita betikoari
goratasuna bizi-ro:
Seme t'Espirituari,
lruei oore betiko.

Arayoztaña

Etxekoandretzari buruzko oartxoak

Etxeko Andrearen Jaungoia

--: koanako bearkizunak --:

(Jaraipena)



A gñondik aterako du etxekoandreak besteak berotzeko bear duan bañungo sua, edo nun gorituko du bere biotza, ta indartu ta sendotuko bere elizkoitasuna? Oteundegiko (Sagrarioko) labetxoan. Ara or, bera berotuko duan berobildegia. Ofera urbildu bedi, Jaun aundia artu beza al duanero, ta Meza santua entzun beza, al badu, egunero; ta lufera sua ekartzera etofi zan Jaunaren ondoan, labe gori biurturik geldituko da bere biotza. Ta Jaun guztiz on ta altsu onek bere entzunaldia egiteko bere auean artzen duanean, berari itz egin bezaio biotz biotzetik aterako zaion izkera efexez, sendiko (familiako) bateri bezela, lagunik onenari bezala, gurasorik maitetsuenari lez, bere nai guziak, estutasun denak, neke guztiak, senafari arkitzen dizkion eramanbeafak, diru ufitasun edo eza, umeen biufikeri ta premiak, bere

gaitz, atsekabe, kardaba ta kezkek uste osoaz (konfianza osoaz) agertzen dizkiola, ta ain zama aundia eramateko bere argaltasun ta ezereztasuna eza-guturik, Jesus maiteari indafa ta laguntza eskatuaz.

Baño ez bedi etxekoandrea baztar batetik iges egiteagatik, besteraño joan, ez leze batean ez erortzeagatik, bestean amildu. Etxekoandreak Jainkozalea ta elizkoia izan bear du, baño ez bedi elizkoikerian erori.

¿Zer da elizkoikeria? Da geiegiko ta eragabeko elizean egon naia. ¿Ta gai oñtan eragabekeririk edo geiegikeririk arkitu al diteke? Bai, bai. Emakume askok uste dute, elizean egotea beste balioko gauzarik Jaungoikoaren auean ez dala ta ez dakiokela berari mirabe egin edo serbitu, orduro elize-ra joanez ez bada; ta ofegatik ama bat baño geiago, ordutan ta etxeko beste zeregiñak utzirik, maiz ta luzaro elizean egoten dira, beren ume musu zikin, txima-jario ta enasak negafez etxean dauden bitartean.

Ez luteke ura esango ezta ere au egingo, Teresa doneak ziona balekite; sukaldeko eltze artean Jaungoikoa arkitzen zala lan egin bear zanean, esan oi zuan; ez baida gauza aundigorik nork bere eginbeafak zintzo ta zeatz betetzea baño. Jaunari eskeñi dezaio guken oparirik (ofrendarik) onena, bere nai edo borondate santua betetzea dalako, ta aren nai biziena da bakoitzak, bere bizibideak agintzen dizkion eginbeafak, al duan ongiena bete ditzan.

Ta ona emen santutasunaren oñafi ta iturburua. Beste bide batetik santutasunaren mendi galurera igo nai duan edozein, bidegaldurik dabil.

Beraz oartzen bada etxekoandrea, bere bearkizun edo eginbeafai kalterik egin gabe ta uts egin gabe, ez ditekela eguneroko elizkizunetara joan, ez bedi ain maiz joan, nai koda ta ase bedi bere neke-lanak Jaunari eskeintzearekin. ¡Auxe egingo balute ama guziak, etxekoandre guztiak! Senafen elkof-

keri ta zakarkeriak, bere geiegiko nausikeri ta gogorkeria, aren emazteagako oztasun ta axolagabekeria ta maiterik eza, Jaunari eskeñiko balezkiote emazte gaxo askok!

Ama guztiak umeen azkera ta ezlkuntza edo edukazioak ekartzen dituzten buruauste ta kardabak, arantza zofotzak bezain oñazekor zulatzen dituzten seme alaben biufikeri ta esker gabekeriak, auen gaitzak ematen dizkien atsekabe garatzak, sendiko (familiko) ezbeafak ta askotan uritasunak ta dirurik ezak sortzen dituzten samintasun sakon-sakonak; ama askok goizetik gauera, aurfena jeki ta azkena etziñaz, egiten dituzten afastaka neketsuak; eramanbear auek guziak, askotan alpefik galtzen diran ta zeruko ondasunen ufe meatz bjurtu lezazketen eramanbear, auek Jaunari eskeñiko balezkiote, ¡bai aberats agertuko lirakela Jaungoikoaren aurfen! ¡Bai goien jafiko lirakela beren buruak santutasunaren maladi edo eskaletan!

Bear bada etxeoandrea arazotuxamaña (lanez betexamaña) egon afen, gorputzari kalterik egin gabe, loari aldi apur bat kenduaz, Meza santua entzutera ta Jauna artzera joan al izango da, etxeo lanetan zabar agertzen ez dala; au ala balitz, ukalditxo ori (sagrificio ori) Jaunari gogoz eskeñi bezaio, ta ez da damutuko.

Baño orain esatera noakiona ta efex egin al izango duana, gogo-gogoan artu dezan etxeoandreak nai nuke. Bere etxea ta etxeoak beste Etxekoandre bikañagokoaren babesean, zeruko Amaren babesean jafi ditzala, ta etxeo guziakin berari efosario santua egunero eskeñi dezaiola. Zeruko Ama onen antzera, amazko biotza duan ezkeror, iñork baño obeki sumatuko du etxeoandreak, Etxekoandre nagusiaren bafun xamufa, bere enetasun iratzartia, aren ziñezko axola ta eten gabeko afeta, itz biz esateko, Ama maitetsu onek aren gauza guzien alde erakutsiko duan ardura ugari (delicado) berdingabea, baldin ain bitarteko on ta begiratzale aspergaitzaren itzalpe gaxoz egiten ba du famili guztiaren aterbe ta gaztelu menperakaitz.

(Bukatuko)

Julian Goñi Ap.

KANSU'RAKO LIMOSNAK


Txina'tar bat Maria Teresa izena duela bataiatzeko ematen ditu Teresa Ayestarán, Oria'ko Alegia'koak. 4 ptza.

Txinako Mutiltxo bat Jose Bitorio izena duela bataiatzeko eman ditu Juana Hermina Oria'ko Alegia'koak 10 ptza.



Ilabete onen amairugarren egunean meza bat emango da «ZERUKO ARGIAREN» irakurle ta ongile guztien alde, Antonio Santuaren aldarean.





Kansutik

(Bukaera)

Pingliang 5-VII-1930.

Lizartza'tar Wentzeslao Aitari



Bidaur

A dakizute *Prefecto* ba degula; oraindik ez du egin bere «*Saŕera*». Jangoikoak nai ba du, saŕera ori S. Ignazio egunean egiteko asmoa du, ta egun artarako jai eder bat prestatzen ari gera. Meza polit bat Sian-Fu'ko Aita Frantziskano bati eskatu diogu: ez gera asko kantatzeko gaudenok, baña ala ere? Iruñako Meza berien antzekoen bat ez al degu aterako? Egun oretarako emen bilduko dira misiolari guztiak, eta guztien artean zerbait eginen da. Txistua ere ez da faltako egun ortan. ¡Karatxo!, esanen dezu noski, ori aitzean. ¿Txistua ere bai? ¿Nundik? Lizarako Ilari A. Agur-gariak *Prefecto* Apostoliko Jaunari bi-

yaldua: edera gero... Nik, al eginak egin da, ikasi det zerbait eta egun oretarako «*Inazio*» ikasiko det danboŕez ta guzti.

Bildur naiz zure eritar Andres Aita egun oretarako emen izango ez ote dan: Tientsin'era gure kaja bila jauna da aspaldian eta oraindik ezda noski Tai-yoan-Fu'eratu ere. Gizarajoak istilu franko izango ditu bidian, eun da berogei kajak (alemandar-enak eta gureak) ondo erabiltzeko.

Lapuren eskuetan erortzen ez pa da, mirari aundia izanen da. Beste «*expedizionetan*» ez da noski oraingoan aña kaja ekariko, gure ize-nean beñepein: gauza geyenak emen erosi ditezke ta. Emendik aurera nik uste obe izanen dela dirua bialtzea, kasulak eta beste orelako gauzak emen merkeago bai daude. Eta emen nola bai dan seda ugari

eta merke, seda erosteko bidia izanez geroz, gure monjak egin dezazkete orielako eliz jantziak.

Egun auetan gure artean izan degu Cheng-yuengo Misiolaria Yurutar Julian Aita maitea. Oso egun ederak egin ditugu alkarekin, eta ura bere erira joateko zegoela Guliko Aita Rafael etori zaigu. Asmatu, asmatu, al badezu nolako atsegiña artuko genun alako gizona gure artean ikusi ta. Kontu garantziak zekarzkien emengo Jeneralarentzako: eta naiz gauza zailtxoak izan, danak nai baño ederkiago atera zaizkio. ¡Ori da misiolaria, ori! Ba daukagu misiolari onak izateko nun ikasi.

Atzo berian Aita Perandok gaztigatu zion A. Rafaeli bere estazioa soldaduz bete beterik zegoela: eta Rafael, ori entzun bezain laster, lapuren Agintariarengana joan eta puroen batzuk eskeñi eta berealaxe dokumento bat atera dio, Aita Perandoren estazioko soldaduei aginduz, len bai len Aita misiolariaren etxea uzteko. ¡Aita Perandok izango duen poza!

Agur gaurkoz, ene Wentzes biotzekoa: urangoan geixago itz egin-go dizut txinar auen itxuraz eta oituretaz. Bitartean ez aztu zuk beñ ere zure otoitzetan gure menpean dauzkagun sinisgabe gaixo auek, oyek ere esan dezaten gurekin: «Suscepimus, Deus, misericordiam tuam in medio templi tui».

Eta gorde beti txokorik beroena zure otoitzetan ainbeste aldiz zure aldamenean iduki dezun Kansuko misiolari onentzat: onek ere etzaitu sekulan aztuko Jaunaren aurian.

Zurea beti.

Arbitzuar Felix.
Kansuko Misiolaria



Tolosako Gure Jaunaren ibilaldia

Gaztetxo bat fededun



Ain ikaragafizko eriotza izan zuan gizona, Il Alejandro Ruasiako Efege zala, Moskow aldeko soldaduak efiz-efi Katolikoei gogor egin eta goñiak ikusiaz eta fedea galarazten zebiltzan.

Ta baso batian zijoazela amabi urteko mutikotxo bat ikusten dute egufa biltzen.

Berealaxen inguratu eta beltz beltz galdetzen diote: ¿Zein duk ire fedia? Eta gaztetxoak bat ere ikaratugabe erantzuten die: Ni katolikoa naiz.

«Gurutze santuaren» egiteko agintzen diote gudariek, eta mutikoak «Gurutze» egiten du Katolikoek egiten degun bezela: eskefeko soñetik eskuñekora eskua eramaten duela, eta ez eskuñekotik ezkefekora, Rusiatarak egiten duten bezela.

Gaztetxoa bizkofa da: eta bere amak erakutsitako legia zuzen gordetzen du biotzean, katoliko bizi eta katoliko iltzeko asmoan.

Soldaduek gogor egin zioten eta bai eta beartu nai izan zuten Rusiako legia dan bezela, beste aldera «Gurutze» egiteko, bañan ezertxo ere etzuten atera mutikoangandik.

Ikusirik agintariak mutikotxo ura gogor zebilala eta etzituela inñolaz ere bere esanak egin nai, iltzeko agintzen die soldaduei.

Soldaduak prestatu ziran, eta bai eta beren iskilu edo armak bear bezela jafi ere, mutikoari eriotza emateko. Mutikotxoa bago bateri ongi lotu, eta atzeratzen dira soldaduak; izkiluak kargatu eta afez afe, gaizkirik egin ez duen mutikotxo gaixoari begira jartzen dira beren buruzayak iya tiroak botatzeko, noiz aginduko ote dien begira. Aurtxo gaixoa zuri-zuri eta daldaraka jartzen da, begiak zeru aldera jaso eta an josirik jartzen diatuala; eta otoitz egiten asten da soldaduek ere entzun zezaketen eran. Agintariak, lafitasuna aurtxoari geitzeagatik, jetxiarazten dizkie soldaduei eskopetak, eta esaten dio onelaxen mutikoari: Katoliko txakur kume: irekin gastatzera zijoazten polbora eta balak ainbat ere ez duk balio; ta ofengatik ez ba duk gure Efegeak agindu duena egin nai, berealaxen urkatzeko manatuko diet...

Eta aurtxoa ixil: eta ezer ere erantzun gabe, befiz «Gurute Santuaren» egiten du, egiazko Elizak erakusten duen bezela...

Ori ikusi ta an daramate arte lodi baten azpira, lepora lokafi bat bota ta kokotz kokotzian koropjilo bat jartzen diote... Bakar bakañik jasotzea falta da aurtxoa zintzilika jafi eta urkatzeko; eta mutiko ta soldaduak agintariaren keñuari begira daude...

Befiz ere galde egiten dio agintariak aufari iya Rusoek bezela «Gurutze» egin nai duen edo ez: eta mutikoak buruakin, batera eta bestera ibiliz, itzik atera gabe, ezetz erantzuten du.

Orduen Efegearen mofoi beltz arek esaten dio onela: ¿Zertarako mutiko txar onekin onelako lokafia gastatu? Kendu lepotik eta bota ezazue putzu batera.

Artu mutikoa ta or dijoaz putzu izoztu batean sartzera. Jo ta jo

putzu gañeko orma (koña) autsi, zulo borobil bat egin, jantziak kendu, bilux gofian jafi ta leporaño ur izoztuan sartzen dute, burua bakafik uren gañean ageri zala geiago ta geiago sufriazteko.

Soldaduak, biotz agitz gogofekoak beti, bere ondora urbiltzen zaizkio fafez. Azkeneko aldiz, soldaduen buru egiten duenak galdetzen dio, ya Ru-soen legian gurutzea egin nai duen eta gaztetxoak ezetz esan zuen bezala, ainbeste soldaduen zama jasotzeko aulegia zan putzu gañeko orma ura puskatu eta urpera erortzen dira soldadu geienak, beren'egintari ta aurtxo katolikoarekin.

Denak ito ziran: bañan baten anima bere odolaz gofi gofi egiñik, zeru aldera egalak zabaltzen zituenean, besteak infernura jetxi ziran, iñeztura ika-ragañi batek bota balitu bezela...

Zeñen ikusgafi egongo zan aurtxoaren anima aingeru artean, zuruan sartu zanian!.. Bere odolaz txukundurik... ¡Fededun aurtxoa! Zorionekoa zu betiko...

Begi-beltx

Azeria lagunak berexten

Azeria zartu zen, eta beti gertatzen den bezela, zartu ta beartu ta atsa laburtu ta ezurak gogortu egin zitzaizkion. Argatik artzulo batean sartu zen ta bere gaiztakeri guzietaz damutu ta geiago olakorik ez egiteko asmoa artu zuen. Ori etzuen gogo onez egin, jakiña da; ezin bestean egin zuen.

Ingurumari guzi aietan zabaldu zen laster beri ori; eta bata bestearen ondokit agertu zitzaizkion animaleak lagun egitera.

Len lena agertu zen zakufa, aren adiskide ta lagun izan nai zuela esanez. Baña azeriak esan zion:

—«Adiskidea: ba zekiat ongi nor aizen: ez aut nai laguntzat. Beti zaunkaz ari aiz, ta berdin jendeari ozka ere egiten diok; ta nik eztiat olako lagunik nai, jendea pakean uzten eztuen lagunik, eztiat nai nere ondoan. Oaberaz emendik.»

Gero agertu zen basastoa, aren lagun izan naiez; baña ari ere esan zion azeriak: «Basasto anaia, (erenaz) bekaiztia aiz, txaraldiak izaten dituk; batez ere eguraldi, aro ona dagonean, begi-ilundu egiten aiz, aro txarfa denean beriz, begi-argitu. Ta iñoiz naigabeen bat gertatzen ba zait, oñazetan banago, ik pafa egingo duk; ni alai ta poztari nagonean beriz, ik negar egingo duk, naigabea artuko duk. Eta olako lagunik eztiat nai. Agur beraz, abil ongi.»

Artzaren ondotik an da bereala leoia, ta artzuloan sarturik esan zion azeriari: «Ar nazazu ni zure laguntzat. Ni ondoan banauzu, eztuzu zeren beldur izan, ni beste pizti guziak baño azkafago naiz, guzien efege naiz, eta ni lagun ba nauzu, iñork eztizu kalterik egingo.»

Baña azeriak ura ere bere ondotik bidali zuen esanez: «Aundinaia ta burueritzia aiz i, naspila ta gofotxa ta ezin-ikusia besterik sortzen eztuten gauzetan sartzen aiz. Eta olako jenderik eztiat nik nere ondoan iduki nai.»

Gero pauma (pavo real) agertu zen aren adiskide izan naiez; baña «Onda adi ortik, esan zion azeriak, afoputz bat besterik ez aiz i. Gañera ire egats (luma) eder oien bila etofiko dituk jendeak, eta ofela ez i ta ez ni, ez gaitek pakean utziko.»

Otsoa etofi zen paumaren ondotik, ta apal apal eskatu zion azeriari aren adis-

kide izan nai zuela, ta ea *aintzakotzat* artuko zuen. «Nere anai maitea, erantzun zion azeriak, eztuk on lapuñen ondoan bizitzea. I nere ondoan bizi ba-intz, ire txarkeri ta lapuñetak nik nere bizkaretik ordaindu bearko nizkikek onenean, ta agur, izan ongi».

Otsoaren ondotik agertu zen zeria; baña azeriak bere aldera urbiltzen ikusi zueneko oiu egin zion: «Alde emendik, urde zikin, loizu, nazkagari ori; ez adila gero neregana urbildu, ire zikinkeri ta loiaz likisturik utziko nindukek: eta olako lagunekin baño, naiago diat bakarrik egon.»

Azkena agertu zen astoa, belarriak apal apal. Baña ura ere bidali zuen esanez: «Utikan, asto belarri-luze ta zentzu-motz. Adiskide ona intzake i ziñez nere lagun izateko! Gutxiena uste nuenean, ařantzaka asiko aiz, ta ire ařantza oiek aditu ta otso saldo bat guregana etořaraziko duk, ta zer estu aldia orduan neretzat! Agur, agur, eztiat ire beařik.»



Ořela animale guziak bata bestearen ondotik bidali ta gero, ona emen zein pizti berexi zituen bere laguntzat:

Katamotza, agotik urin edo usai goxoa dariolako.

Bildotsa, apal, otzan, gozoa delako.

Erbia, iñori gaitzik egiten eztiolako.

Sagařoia, bere arantzez armaturik dagolako.

Idia, bere lanetik bizi delako.

Armiñoa, garbi-txukuna, ta loiaren beldur delako.

Txinurria, oso begiratua ta begi-luzea delako.

* * *

Kristaua, zuk ere adiskide onak bila itzatzu, adiskide izan naiez datozkizun guziaz ez fidatu. Liburu Santuak esaten digu: «Adiskide ona laguntza azkařa da, alako bat arkitzen duenak ondasun aundia, uře ta ziřar guziak baño geiago balio duena arkitu du.» Baña Liburu Santu berak esaten digu alaber: «Adiskide bat egin nai duzunean, ongi probatu ondoren, nor nolakoa den ongi ikusi ondoan ar zazu.» Adiskide gaizto batek on baño kalte geiago egingo lizuke.

Urtsuya.

IL-BEŘIAK

Jaunak beregana eraman ditun «Zeruko Argia» ren arpidedun zintzoak izan ziran auek:

Lazkau'n: Julian Izagife, Agořaren 20'ean, eta Uřilaren 28'an Jose Maria Etxeberia.

Zeanuri'n: Azaroaren iruan Ipiñaburuko Nagusi zana, Martin Gorostia-ga, 42 urtetan. Zeruan egongo al dira.

Azkeneko bien Alargunei ta beren etxekoai laguntzen diegu beren atsekabeen; arpidedunei otoitz bana eskatzen diegu beřiz beren onetan.

Ikasi..! Ikasi..!



VII—Oraingoan ez! Okindegira
noaⁿⁱni ogi^{art}artzera:
Ogi biguñal! Ofen gozoa!
Sartzaite nere zarera.




VIII—Saskian dauka ogi beroa,
gose miñ-miña barnian:
ozka ta ozka asten da eta
ortzak dijuaz airian.



IX—Etxe ondoan loxintxazale
ateratzen da txakura:
Milixkazale jalde! Ortako
ez dago nere sudura!



X—Eskuz ikutu besterik ez-ta
ufe biurtu txakura!
Ene! Potxolo?—Geldi geldirik
bere ipurdi makura.



XI—Ler egiñikan gosez dijoa
oatsetxora bizi-ro:
arkaitz ufe bat balitz bezela
ezufaz austen dizkio.




XII—Ufeak ez du atxegihikan,
nazka bakafiz dagoki:
limosnatxoak beriz biguintzen
dio biotza xamurki.
Limosnatxoak betetzen dio
pakee gogua ederki.

Arayoztara

Neketako Ama-Birjiñaren Irarkolan Iruña'n

1930-Urte guziko Arkibidea



Orialdeak

<i>I. M. A.</i>	Fondgallandgo Gido.	5,44,74
<i>Arbelaitz</i>	Guazen Tonga'ra? (Otsaleko paper gofietan)	
»	Efiaren adiskideak?	33
»	Efiarentzako Liturjia (Pazko garaia)	40
»	Efiaren adiskideak? Bai zera!	86
»	Ori etxe edefa	105
»	Umeak ogi eske	172
<i>Arbitzuar Felix</i>	Txinako itxas ontzutik	26
»	Il da Bargotar Fuljenti Misiolaria	117
»	Kansutik	155,187
<i>Arayozko Artzaña</i>	Jesusen izena.	1
»	Lourdesko Ama Birjiña agertzen da	17
»	Agur, gurutzea (neurtitza).	57
»	Ta ni bakarik Jaun. (Oriako paper gofietan).	
»	Katoliko gaixoak Russian	163
<i>Artar A.</i>	In memori (neurtitza)	73
<i>Arayoztara</i>	Jaungoikoaren	184
<i>Arteaga</i>	Txinguria eta txiniska. (Ilbeltzeko paper gofietan)	
<i>Ataungo Bonifazio</i>	Andre Marirenganako egiazko jaiera 42, 68, 126, 140	
»	Afitokietako Andra Mari	94
<i>B.</i>	Parzhamgo Konrado zorionekoa.	97
<i>Bach. J. S.</i>	Jesus nere poza	88
<i>Begi-Beltx.</i>	Asistafari (neurtitza)	154
»	Jaungoikoaren Etxera	161
»	Gaztetxo bat fededun	180
<i>Bordari</i>	Itzaia (neurtitza) (Neguilako paper gofian). .	
<i>Donostiar Gabriel</i>	Gizonak bear ditugu	21
»	Gure Obispo Jaunaren gogo bizia	31
»	Jakinbeaia. . 39, 55, 71, 87, 103, 119, 135, 151	
»	Jose Luisen eriotza	58
»	Aita bat maite	174
»	Debako Ostolatza Jaunaren Eskola.	182
<i>Donostiar J. And. A.</i>	Egueria.	8
»	Virgo Dei Genitrix	184

<i>Elduayen</i>	Eguzki Anaiaren eresia.	56, 104, 120, 136
<i>Elordia</i>	«Esker lorea» (neurtitza)	132
<i>Erasungo Fernando</i>	Zergatik ote?.	76
»	Bi adiskide bear bezelakoak	111
<i>Ereñotzu</i>	Gatzezko eliza.	132
<i>Euskal Bidari</i>	Euskaldunak Ameriketara	133
<i>Garbizu'tar Danel</i>	Pasai bide.	116
<i>Goñitar Julian (Apaiza)</i>	Naste bofaste nazkagari eta negargariak. (Il-	
»	beltzako paper gofietan)	
»	Etxekoandretzari buruzko oartxoak. (Otsai-	
»	leko paper gofietan) ta 47, 79, 127, 142, 149	185
»	Eman bear al det botoa?	109
<i>Gorostiagatar Eulogi</i>	Itxurazko eriotza ta egiazko eriotza.	37, 52
»	Jaungoikoaren deia (Bokazioa)	65
<i>Idazleak</i>	(Zubigar) Garbizu'tar Jon zana	90
<i>Intzar Damaso</i>	Induljentziak	10
»	Aldareko Sakramentu guziz Santua.	22
»	Jesus Aldareko Sakramentu Santuan	81, 100
»	Sakramentu guziz Santua zertarako da?	113
»	Jauna artzea, Sakramenturik aundiena artzea	129
»	Jauna ondo artzeko bear diranak.	145
»	Meza Santuaren Oparia	165
»	Meza santua eta bere ondasunak	177
<i>Iraizozko Polikarpo</i>	Azeria janari bila.	53
<i>Iruzubi</i>	Ama Euskera gaxoa!	162
<i>Izengabe</i>	Befiak. Ilero ilero.	
»	Meza Alkartasuna.	25
»	Txinatik	27
»	Martin Potzolo	62
»	Loreen Efegeña	67
»	Ikasi! Ikasi! 14, 45, 62, 77, 93, 110, 125, 141, 159	
»		176 y 192
»	Zorionak	85
»	Bargotako Fuljentzio A. il da Txinan	89
»	Ezer egin baño len (Ipuia).	95
»	Arantzatzu ta Napafoko Efegea. (Uztaileko	
»	paper gofietan)	
»	Itz begiragarik	122
»	Sandularia.	160
»	Ikazkiñak (Azaroko paper gofietan).	
<i>Jauregi'tar Luis</i>	Apaiz eginzaneko bere 50'gafen urtean XI	
»	gafen Pio Aita Santuari	
»	Nere olerkiak.	20

»	Txantxangofia	54
»	Gurutzearen oñetan.	70
»	Udazken eresia	102
»	Artzai Ona ta Bildotsak	148
»	Dabit'en CXXXVI'gafen Eresia	171
<i>Lizafako Ilari.</i>	Gurutziltzatuari	40
»	Zeru luñen Efeğiña	72
»	Anima gaxoaz	168
<i>Loramendi.</i>	Ardi gaxoa!	124
»	Gutziz edefa	181
<i>Lorkako Berardo. A.</i>	Lenengo monja-gaya Kansun.	158
<i>Mariaren moñoia</i>	Amona doakabea	12
<i>Oleartso. O. M. Cap.</i>	Txingufiak. (Ilbeltzako paper gofietan)	
<i>Oyarzuna</i>	Oztuko zeran epel epel	46
<i>Urtsuia</i>	Jesus nere poza, (Neurtitza).	88
»	Iru lapufak	123
»	Azeria lagunak berexten	190
<i>Xorobi</i>	«Irudi egokia»	84
<i>Yuretar Julian.</i>	Txinatik	69, 107
»	Txinako kristau sendietan elizatxoak	78
»	Txinako kontuak.	138
<i>Zubigar</i>	Gogape-zimikoa.	36
<i>Zapirain'tar Anastasio</i>	Oroimenez	92

EDERGAŖIAK

Oriadeak

Egubefi onak.	3
Urte befi on!	5
Gure misiolariak Txinara daramazkien itsasontzia	9
Oñatiko Unibersidadea	11
Ikasi! Ikasi!	14, 45, 77, 93, 100, 125, 142, 159 176, 192
Ama Birjiña Jaunaren Legea ikasten	19
Gure Misiolariak berekin batean SAABRUCKEN ontzian zi- joazen Misiolari gizonezko ta emakumezkoakin.	27
Kansun lëndik dauzkagun 8 Misiolariak A. Alemandar bate- kin	29
Elizaren Zaintzale Jose donea	35
Prudentzio deunako zubia	42

Ama gaxoa!	51
Jose Luisen eriotza	58
Martin Potzolo	62
Añasate - Udala auzoa	66
Loreen Efégiña	67
Opio-belafaren efetzale apafetsia, oso argaldurik	78
Au da nere Gorputza	83
Balmaseda (Bizkaia). Zubi zafa	85
Zubigar	90
Balmasedako Eliz ingurua Ostiral Santuan	91
Parzham'go Konfado Zorionekoa	99
Bilbaoko parke baztartxo bat	108
Jesus irakasleen erdian.	115
Pingliango kristauak Fulgentzi Misiolariaren aúfean otoitz egiten.	117
Aita Fuljenti lurperatzen.	118
Ondafabiko Kaputxinoetan Kristau ikasbideko aúfak	131
Jaunari loreak botaz juan ziran aúfak Ondafabin	134
Etxebarri (Bizkai)'ko eliza	139
Besta Befi eguneko Meza laguntzaleak Ondafabin.	141
«Zu nor zera? Ni Jesusen Teresa. Ni Teresaren Jesus naiz ba»	147
Gure Misiolari gaiak Altsatsuko Ikastetxean.	150
Asistafa	154
Kansuko Kaputxina Misiolariak Aurtzaro Santuko umetxoakin	156
Lenengo monja-gaia Kansun	158
Jaungoikoaren etxera	162
Efusiako soldaduak eliz bat «garbitzen»	163
Efusiko mutiltxoa kalean lo	167
Aizpa afai saltaleak.	175
Jesus gaztetxea	178
Guxtiz edefa (izafa)	180
Tolosako gure Jaunaren ibilaldia	188
Azaria bere lagunekin	191

